

aikor.

TOKIKOM

2025eko abuztua · #260

ERLANTZ GARCIA, KAKTUSERO

Arantza
artean

Euskara eroso ikasi eta bizi

Txorierriko Txepetxa AEK euskaltegia

EUSKARA-IKASTAROAK

A1, A2, B1, B2, C1 mailak

HABEk homologatutako euskaltegia
Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak
Herrian bertan ikasteko aukera
Autoikaskuntza
Online

Matrikula zabalik irailaren 29ra arte

Gorbea kalea 5, behea, Derio
94 454 39 67 | 607 59 87 94
txepetxa@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

**EUSKO JAURLARITZA
HABE**

**TXORIERRIKO
MANKOMUNITATEA**

**LARRABETZUKO
UDALA**

Dirulaguntza bereziak A1 mailarako eta 16-18 urte bitartekoentzat (C1)

aikor.

Argitaratzailea:

TOTOAN Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta, Altzora, Darabilgu eta Tximintx komunitatea)

Zuzendaria:

Xabier Goienetxe

Erredakzio burua:

Iker Mojón

Maketatzailea:

Aner Mentxaka

Publizitatea:

Ruth Bilbao (688 782 642)

Zuzentzaileak:

Iñaki Astorkiza
Oihana Astobiega

Kolaboratzaileak:

Taupa
Idoia Andres
Juanjo Ortiz
Maria Garabietza
Xabier Diaz
Joanes Camara
Iñaki Olabarrieta
Jose Angel Mentxaka

Inprimategia:

Gertu

Banaketa:

Eragin

Ale kopurua:

8.000

Lege gordailua:

BI 137-02 ISSN 1578-9322

aikortxori@aikor.com

688 864 135 · 747 406 561

aikor aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik.

CC BY-SA 3.0

Aitortu - Partekatu Berdin 3.0 Moldatu gabea



SUMARIOA

- 4 Gutuna
- 4 Berri laburrak
- 12 **1936ko gerrako irudi berriak (II)**
- 14 **Lezamako jaiak**
- 18 **Txoriberri**
- 20 **Erlantz Garcia, Kaktusero**
- 24 **Pozgarri FST**
- 26 **Larrabetzuko jaiak**
- 31 Ilargiaren aldiak
Ziklo obarikoa edo ziklo menstrualak?
- 32 EMAUS
Kartoizko etxeak
- 33 Teknologia
Zientzia, teknologia eta politika:
Uranioaren aberastea
- 34 Menditik Patxadaz
Memoria historikoa Markinara bidean
- 37 Denbora-pasak
- 38 Sukaldaritza

DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



GUTUNA

TAUPA.
EUSKALTZALEEN MUGIMENDUA

Taupak, azken epaiaren harira

Opor bezperan gauden honetan, ez da udako beroa arnas estuka jarri gaituena, epaitegietatik datozen albiste kezkarriek eragin digute.

Espainiako Auzitegi Gorenak EAEn euskararen aldeko udal politikak indargabetzea erabaki du, Vox-ek aurkeztutako helegitea onartuz. Hizkuntza baten aldeko neurriak hartzea koofizialtasuna urratzea liratekeela ebatzi du, besteak beste. Epaiak udal mailako ekimenak mugatu nahi ditu, tokiko erakundeen esku-hartze legitimoa auzitan jarritz.

Erabaki hau ez da auzi tekniko bat: hizkuntza politika epaitegietatik egiten ari dira, euskararen biziberritze prozesua oztopatzeko estrategia baten baitan. Onartezina.

Hizkuntza berdintasunaren alde egiteko, justiziazkoa da egoera zaurgarrian dagoen hizkuntzarekiko ekitatez jokatzeko. Euskara lehenesteko neurriak ez dira pribilegioa, hizkuntza gutxitu baten biziraupena bermatzeko beharrezkoa den bidea baizik. Epai hauetan ebatzitzakoa Europako hizkuntza gutxituen gutunean jasotako gomendioen aurka doa. Aniztasuna zaindu nahi duela dioen estatu bateko justizia sistemak ezin du ahaztu, aniztasuna preseski, hizkuntza gutxiagotuak babestetik bermatu daitekeela bakarrik.

Taupan ez gaude ados erabaki honekin, eta gure agintariei eskatzen diegu, ahal bait arinen neurri politiko eta legalak har ditzaten. Epe motzean, herriz herri antolatuko diren mobilizazioetan parte hartzera deitzen zaituztegu bazkideok eta euskaltzale guztiak. Orain da unea elkartzeko, erantzuteko eta agerian uzteko ez gaudela atzera egiteko prest.

Euskararen aurkako erasoan aurrean, erresistentziarik eraginkorrena euskaraz bizitzea dela sinetsita, antolatu gaitzen herrietan eta gaur, inoiz baino gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan bizi gaitzen euskaraz!



Kezkaren bat adierazi nahi baduzu edo zerbait esateko baduzu, gutuna idatzi ahal duzu, eta aikortxori@aikor.com helbide elektronikora bidali.

BERRI LABURRAK



Saharako umeak Larrabetzun daude udaz gozatzeko

Urtero legez Oporrak Bakean ekimena martxan dago Euskal Autonomia Erkidego osoan, baita Txorierrin ere. Horregatik, 21 umek Larrabetzuko eskolan igaroko

dute uda, eta beste haur batek Sondikako harrera-familia batean. Uztailaren 19an harrera egin zieten akereek umeei, plazan Udalak antolatutako ekitaldi batean.

Ekiparazioa lortu dute FCC Aqualiako langileek

Ekainean 20 greba egun egin ondoren uztailaren 1etik greba mugagabeen zeuden Loiuako FCC Aqualiako langileak, beren lan baldintzak hobetzeko akordiorik lortu ezin zutelako. Handik 3 egunetara enpresarekin ekiparazioa adostu dute eta Bizkaiko Ur Patzuergoko gainontzeko azpikontraten langileen lan baldintza berdinak izango dituzte, LAB sindikatuak azaldu duenez.

FCC Aqualia Bilbao Bizkaiko Ur Patzuergoaren azpikontrata bat da, baina beste bi enpresa daude Bizkaia osoa hornitzeko. LAB sindikatuak salatzen duenez, orain arte Loiu aritzen diren langileen lan baldintzak besteenak baino txarragoak ziren: "Espainiako estatuko hitzarmena dute. Soldata taulak konparatuz gero, %50eko aldea dago, gutxi gorabehera". Behin akordioa lortuta langileen arteko ezberdintasunak amaitzea espero da.

POLITEKNIKA TXORIERRI

DUAL intentsiboko ikasleen

% 82ak kontratuarekin amaitzen du enpresan

irakurri gehiago

Hegan egiteko aukerak!

Bizkaiko Erromeria Eguna jaioa da

Durango izango urriaren 4an. Buruhandiekin, musikarekin eta dantzarekin aurkeztu dute egitaraua antolatzaileek: Bizkaiko Foru Aldundiak, Danok Pro taldeak eta aurten haiekin lankidetzan arituko den Durangoko Udalak. Publiko guztiei zuzendutako ikuskizun eta ekintzak hartuko ditu urriaren 4an Durangok, eta hala nabarmendu du Danok Pro taldeko Jon Garaik: "Bizkaiko Erromeria Eguna ez du soilik dantzariak edo musikariak diren horientzako eguna izan gura, gure musika eta dantzarekin gozatu nahi duen orok izango du tokia hemen, modu aktiboan parte hartuz zein ikus-entzule soil izanez".

Parte hartuko duten taldeen izenak ere eman ditu: "Dantza-plaza izango dugu Aikorekin, gaztetxoentzako dantzaldia Esna Gazte taldearekin, Larrain Dantza herrikoia eskainiko dute Gaztedi Dantza Taldeko gaiteroek, herri bazkariaren ostean helduak Luhartz taldekoekin kantuan ari diren bitartean Goazeneko aktoreek ere gaztetxoentzako kantaldia izango dute". Erromerien "sorburuetara" jotzeko asmoa dute, eta horretarako txistulari, tanborreru, albokari eta panderojole ospetsuak eramango dituzte Durangora: Ibon Koteron eta Julen Begonia albokariak, Iker Alvarez eta Aitor Urkiza txistulariak, Mirari Azkune eta Aintzane Agirrebeña trikitilariak eta Zabaleta eta Motriku trikitilariak. Ez dira faltako erraldoiak eta buruhandiak, esaterako Mairuek eta Barakaldoko erraldoi eta buruhandiak. Gainera, egun osoz, erromerien inguruko hitzaldi, tailer, puzgarri eta kale animazioek osatuko dute.

Gazteentzako egungo erromeria formatu elektronikoa eta handiagoe-kin amaituko da Bizkaiko Erromeria Egunaren lehenengo edizioa. Iluntzeko 20:00etatik hasita, gaur egun Euskal Herri osotik plazarik plaza dabiltzan lau erromeria talde bizkaitar igoko dira Plateruena antzokiaren oholtzara: Gautegun, Zazpizar, Altxa Porru eta Zutik.

BERRI LABURRAK



Aitziber Raya ilustratzaile derioztarrak Etxepare saria jaso du

Aitziber Raya ilustratzaile derioztarrak Etxepare saria jaso du Gotzone Butronekin egindako Orkestra zooragarria album ilustratuagatik. 5 mila euro jasoko dituzte egileek eta udazkenean Pamiela argitaletxeak bere lana argitaratuko du.

Sariak euskarazko literatur lanen produkzioa sustatu nahi du eta 2004tik 16 album saritu eta argitaratu dira haren bidez. Ekainaren 30ean eman zieten saria Iruñeko Udalak, Nafarroa Iparraldeko Euskara Mankomunitateak eta beste 13 udalerri Kondestablearen jauregian egin zen ekitaldian.

Aurten, 29 lan aurkeztu dituzte orotara. Patxi Zubizarreta idazleak, Aitziber

Akerreta irudigileak eta Idoia Sobrino liburuzainak osatu dute epaimahaia. Azpimarratu dute gaur egun sormen-indar handia sumatzen dela sektorean, eta saritutako lana kalitate artistiko eta literario handikoa dela.

'Orkestra zooragarria' lana Galtzagorri elkarteak eta Iruñeko Udalak esku antolatzen duten Biko-Teka lan-tegian abiatu zen. Bere xedea da idazle eta ilustratzaile hasiberriak bikoteka lanean jartzea, eta elkarlan horretatik album ilustratu baten proiektua sortzea. Hain zuzen ere, azken urteetan bertan abiatutako zazpi proiektuk eskuratu dute Etxepare saria.

**BIZKAIKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2025**

LEHENENGO FASEA
URRIAK 5
 domeka

**Ander Ucelay Aristi,
Imanol Uria Albizuri,
Josune Aramendi Perez,
Maite Sarasola Isazelaia,
Peru Vidal Gurrutxaga
eta Unai Mendiburu Valor.**

MUNGIA

OLALDE ARETOA. 17:00

www.bertsosale.eus/bizkaikotxapelketa
www.bertsosarrerak.eus

Antolatzailea

Babesleak

Laguntzailea

BERRI LABURRAK

Ormazabalek 15 milioi euroko inbertsioa egingo du Derion aurreikusten duen lantegi berrian

Derion 15 milioi euroko inbertsioa egingo duela jakinarazi du Ormazabalek, zehazki, Parke Zientifiko eta Teknologikoan aurreikusten duen lantegi berria eraikitzen jarraitzeko. Deriokoa, hain zuzen, izango da enpresaren “egoitza global berria”, bere 2024-2026 Hazkunde Plan Estrategikoaren arabera. Hala aurkeztu diote Velatia taldeko buruzagiek Imanol Pradales Lehen-dakariari Igorreko (Bizkaia) fabrikara egindako bisitan. Bertan ere beste 20 milioi euro inbertituko ditu enpresak.

“Bizkaiko Parke Zientifiko eta Teknologikoan ditugun instalazio berriak martxan jartzeko bidean aurrera egiten ari gara; instalazio horiek gure soluzio digitalen muina hartuko dute, eta gure egoitza global berri bihurtuko dira”, adierazi du Velatia taldeko Ormazabal enpresak prentsa ohar batean. Proiektu hori gauzatzeko 15 milioi euroko inbertsioa iragarri du, eta 200 profesional inguruko diziplina anitzeko talde bat bilduko duela adierazi du, “berrikuntza eta lankidetzaren teknologikorako gune bat sendotzeko”.

Igorreko lantegira egindako bisitan eman ditu berri horiek. Bertan egon dira Imanol Pradales Lehen-dakaria; Mikel Jauregi, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburua; Javier Ormazabal eta Alejandro Ormazabal, Velatiaren presidentea eta presidenteordea, hurrenez hurren; Jorge González, Ormazabaleko CEOa; eta José Luis Bilbao, lantegiaren zuzendaria.

Velatia taldeko buruzagiek Eusko Jaurlaritzako ordezkariari auzkeztu diete Ormazabalek 2024an garatutako Hazkunde Plan Estrategikoa, 2026ra luzatuko dena. Horrek, Igorreko lantegirako ere

20 milioi euroko inbertsioa jasotzen du. “SF6rik [sufre hexafluorurorik] gabeko teknologia duten gelaxka berriak ekoizten hasi gara. Irtenbide hori oso harrera ona izaten ari da merkatuan, eta Ormazabal erreferentea da sare elektrikorako soluzio seguruen eta jasangarrien garapenean”, adierazi du enpresak.

Igorreko lantegia “cgm.zero24” gelaxka familia berria ekoizteko teknologiarik aurreratuenaz hornitzea da helburua: “Espainiako eta nazioarteko merkatuetan gas fluoraturik gabeko soluzioen hornidura bermatzeko”. Produktu-lerro hori “funtsezko urratsa” da Ormazabalen estrategian, sare elektriko “seguruagoa, jasangarriagoa eta eraginkorragoa” lortzeko.

55 URTEKO IBILBIDEA

Imanol Pradalesek Velatiak irudikatzen dituen ekosistema eta balioak nabarmendu ditu, baita “egokitze, dibertsifikatzeko eta zabaltzeko duen gaitasuna” ere. “1967an abian ipini zen armairu metalikoen lantegi txikia gaur egun enpresa globala da, eredugarria da sare elektrikoak garatzen, elektronikan, eraginkortasun energetikoan edo ingeniariaritzan adimendunean. Mundu osoko enpresa eta entitateak erakartzen dituzten azpiegiturak eta entsegu-laborategiak ipini dituzue abian eta talentuaren eta ikerketaren aldeko apustua egin duzue”, nabarmendu du Lehen-dakariak.

Gaur egun Ormazabalek 50 lurraldetan ditu 17 lantegi eta 2.700 langile baino gehiago, tartean Euskal Autonomia Erkidegoko 1.200 lagun. Urtero 748 milioi euro fakturatzeko, horietako 175 euskal enpresetan materialak erosteko erabiltzen ditu.

Sondikako herri bazkari solidarioaren 4.390 euro, Naizenentzat

San Juan jaien testuinguruan herri bazkari solidarioa antolatu zuen Sondikako Udalak Bizkaiko Sukaldarien Bilkura (BISUBI) fundazioarekin batera. Bere helburua Naizen elkar-tearentzat dirua biltzea zen, eta astelehenean jasotako 4.390 euro eman zizkien Naia Landa alkateak elkar-tearen ordezkariari.

Hego Euskal Herriko trans adingabeei arreta eta laguntza eskaintzen dizkie Naizen elkartek, eta gainontzeko herritarrei informazioa ematen die. Bere izenean Gemma Molinak eta Isabel Monterok jaso dute dirua “esker onez eta hunkituta”, eta eskerrak eman dizkiete antolatzaileei eta parte hartzaileei: “Mota honetako ekitaldiek oso beharrezkoa den ezagutza eskaintzen dute haur eta gazte transexualen errealitatearen inguruan”. San Juan jaien programaren baitan antolatutako otordurako salgai zeuden 300 txartelak saldu ziren, eguna ailegatu baino lehenago, eta beste horrenbeste menu prestatu eta zerbitzatu zituzten BISUBI Fundazioko sukaldariak. “Ohorea da guretzat ekitaldi solidario hauetan parte hartu ahal izatea eta zirrara eragiten digu herritarrek planarekin bat egiteko erakutsi duten prestutasuna”, adierazi du BISUBI fundazioaren sulkaldari eta presidente Lara Martínek. Bere aldetik Sondikako alkate Naia Landak ilusioa adierazi du “oso beharrezkoa den zerbitzua eskaintzen duen elkar-tearen bidean gure harri-koxko jartzeagatik”.



ZAMUDIO
Loteria Nazionalek

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
loterias.zamudio@gmail.com



ELORRIETA
INSTALACIONES ELÉCTRICAS

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
INSTALAZIOAK, MANTENTZE-LANAK,
KONPONKETAK...

MATERIAL ELEKTRIKOA SALGAI

info@elorrietainstalaciones.com 639 582 547
Uribe kalea 12 behea · Derio 944 540 386



SQUAT
TRAINING CENTER

ENTRENAMIENTO PERSONAL • LESIOAK • OPOSIZIOAK
ONLINEKO JARRAIPENA • KIROL ERRENDIMENDUA

Urkiola 4, Derio • squattrainingcenter.es • 686 917 409

Kukularrako zubibidearen kanpoaldeko erreia, itxita

Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazi duenez, gaurtik, uztailaren 14tik, abuztuaren amaierara bitartean, Kukularrako zubibidea hobetzeko lanak egingo ditu, BI-30 errepideko 11+800 eta 12+050 kilometro-puntuen artean, La Avanzada eta Barakaldorako norabidean. Lan horietan, egungo uhinbiko bikoitza ordezkatuko dute, 80ko hamarkadaren amaierakoa baita, eta, haren ordez, euste-maila gorena izango duen pretil berri bat jarriko dute. Horretarako, galtzadaren kanpoaldeko erreia okupatu beharko da, eta hortik espaloia eta zerbitzu-hodia eraitsiko dira.

Uztailean eta abuztuan, Kukularrako zubiaren kanpoaldeko erreia ez da erabilgarri egongo, baina bigarren erreia utziko da Enekuritik datozen ibilgailuak bidean zuzenean sartu ahal izateko. Horrela, Txorierriko korridorea hiru erreitatik bi erreitara aldatuko da Enekuriko irteeran (12. irteera), eta Leioarako bihurgunea gaur egun egiten den tarte berean egongo da, baina errei bakarrekoa izango da.

Egunean 100 mila ibilgailu inguru igarotzen dira Kukularratik, horregatik, azaldu duten moduan, lanak udan egingo dira zirkulazio gutxieneko denboraldia delako. Hala eta guztiz ere, baliteke korridoreko eremu horretan auto-ilarak sortzea, bide horren gaitasuna murriztuko da eta. Foru Aldundiko sail teknikoak egingako simulazioen arabera, auto-ilara horiek lanegunetan sortuko lirateke 15:00etatik 16:30era bitartean, eta Artxandako lotuneraino iritsiko lirateke, baina ez Larrondokoraino.

BERRI LABURRAK



Iker Muniain, CD Derioko entrenatzaile berria

Iker Muniain (32 urte) izango da CD Derioko entrenatzaile berria datorren denboraldian, futbol taldeak sare sozialetan jakinarazi duenez. Athleticceko jokalaria ohia 20 urtez egon da zelaian, eta orain, lehenengoz, talde bat zuzenduko du. Horrela, Almagroko San Lorenzo taldean 2024ko irailean hasitako bidea amaitu du.

CD Deriok X-an (lehen Twitter) argitaratutako bideo batean Munianek adierazi du erabakia orain dela asko hartuta zeukala: “CD Derio aukeratu dut, azken urteotan lan ona egiten dabiltzalako, eta egia esan, oso pozik nago buruan ditudan

ideiak garatzeko eta nire talde propioa osatzeko aukera izateagatik”.

Eskarmentu handiko jokalaria da Muniain eta bere ezagutza Hirugarren RFE-Feko taldearekin partekatzeak hautua egin du. Argi dauka zer motatako taldea osatu nahi duen: “Ausarta, anbizio handikoa eta energiaz beteta irudikatzen dut, partidaz partida eta entrenamenduz entrenamendu hobetzeko ametsa izango duena. Nire ibilbidean hainbat entrenatzaile ezagutu ditut, eta bakoitzak zerbait berri irakatsi dit. Orain da nire momentua daukadan ideia jokalariei helarazteko, gauzak ondo irten dakizkigun”.

IZ
ILE APAINDEGIA
946036913
Txanongorri s2
ZAMUDIO
iz.apaindegia@gmail.com

RADIO TAXI FEMADE
Zure taxi, Teorierikoa
Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu
24h **94 480 09 09**
ERRESERBAK:
www.taxisaeropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A
TAXI FEMADE

BERRI LABURRAK



Auzoetatik herrigunera 3 euroren truke: Auzotaxi martxan jarri nahi du Sondikak

Auzoak eta herrigunea lotu nahi ditu Sondikako Udalak urtea amaitu baino lehen, horregatik 2024ko aurrekontuek aurreikusten zuten Auzotaxi zerbitzua arautuko duen aurreproiektua argitaratu du. Honek erabileraren baldintzak finkatzen ditu: ordutegiak, tarifak edota eremuak. Halere, behin behinekoak direnez sondikoztarrek aldatetako proposatzeko aukera izango baitute uztailearen 21era arte, edozein ararekin egiten den bezala.

Udal-ordenantzak adierazten du bidai bakoitzak 12 euro balio duela, baina horietatik 9 Udalak ordainduko dituela, hau da, erabiltzaileek 3 euro ordainduko dituzte. Gainera 16 eta 25 urteren arteko ikasleen kasuan merkeagoa izango da, eta 2 euro baino ez dituzte ordainduko.

16 ibilbideko bonu sortetan salduko dira udaletxean, 48 euroren truke, 32 euro ikasleentzat; beraz, ez dira bidai solterik salduko. Urtean gehienez 10 bonu eska daitezke, eta gazteek 9, guztira 160 eta 144 bidai, hurrenez hurren.

IRAUNGIPENA

Abenduaren 31ra arte izango dira baliagarriak, baina guztiak erabiltzen ez badira, hurrengoko bonuekin trukatu ahal izango dira erabili gabe gelditutako horiek, baina ez da dirurik itzuliko. Bidaiak erosteko Auzotaxi txartela eskatu

beharko da udal-bulegoetan edo egoitza elektronikoaren bidez, pertsonala da, beraz bakoitzak berea izan behar du, ezin delako partekatu. Eskabide-orriarekin batera aurkeztu behar dira telefono zenbaki bat, nortasun-agiriaren fotokopia eta bere neurriko argazki bat; gainera euro bat ordaindu behar da.

ORDUTEGIAK

Urteko hilabete guztietan, abuztua barne, eskainiko da zerbitzua; astelehenetik domekara 7:30etatik 20:00etara. Baina denboraz antolatu behar da bidaia, aurreko eguneko 20:00ak baino lehen erreserbatu beharko baita. Larrialdietan 30 minutu arinago erreserbatu ahalko da.

Txartelan telefono zenbaki bat agertuko da, eta horri deituz edo Whatsappez mezu bat bidaliz lotu daiteke bidaia FEMADE elkarte txalarietara. Behin taxian sartuta, txalariak txartela eskatuko dio erabiltzaileari eta ibilbidea Auzotaxi zerbitzuan aurreikusitako eremuaren barnean dagoe la egiaztatuko du. Amaitzean, erabiltzaileak bonu bat emango dio txalariari.

Eremuei dagokienez, herrigune eta beste 9 zonalde ezartzen ditu zerbitzua arautuko duen aurreproiektuak: San Roke, Pike, Aixerrota, Berriz-Bagatza, Goietxa, Sangroniz, Aresti-Izartza-Bereza, Asua-Landa eta Berreteaga kalea.

Eskolako komunak eta aldagelak berrituko ditu Derioko Udalak

Uda honetan Lehen Hezkun tzako 1. eraikineko komunak eta aldagelak berritzeko lanak hasi dira. Esku-hartzeak 223.500 euroko aurrekontua du, eta lehenengo eta bigarren solairuetako instalazioak guztiz eraberritzea du helburu. "Trisgarritasuna hobetu eta diseinua eguneratuko da, zentroari espazio modernoagoak, erosoagoak eta funtzionalagoak eskainiz. Obra honek 2020. urtean beheko solairuan egindako jarduketak osatzen ditu", azaldu du Derioko Udalak.

Azken obra honekin, Udalak eskolako hiru eraikinetako komun eta aldagela guztiak berritu ditu, urteetako prozesu bati amaiera emanez. Hain zuzen ere, azken lau udatan egin dira aipatutako eraberritze lanak. "Udalaren eta Eskolaren arteko sintonia onak elkarrekin lan egiteko aukera paregabea ematen digu, kalitatezko hezkuntza publikoan aurrera egiten jarraitzeko", nabarmendu du Esther Apraiz alkateak. "Gure konpromisoa da hezkuntza-instalazioak mantentzea eta hobetzea, garai berrietara egokituz eta ikastetxeko haur eta profesionalentzako ingurune inklusiboak, seguruak eta estimulatuzaileak ziurtatuz".

Obra hau heltzen da apirilean patio berria amaitu ondoren, ikastetxearen kanpoko espazioa eraldatu duena; jolas-ingurunea "sortzaile, inklusibo eta irisgarri" bihurtzeko egin zutena Udalak. Horretarako eraiki ziren berdeguneak, ur-jolasak, musika-panelak, oreka-eremuak, bi metroko zabalera duen bidexka irisgarria eta 155 m²-ko eremu estalia, euria egiten duen egunetan erabiltzeko.

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zerbitzu Berrak
Logopedia
Podologia
Kiropraxia

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txanierri etorbidea, 9 - Lortza | Arreaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 857 70 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jartai izenguna Facebook-en

Sondigarbi
GARBITEGIA

ITURRIGANE, 2
635584941

EGUNERO
8:00-22:00

15 urtetik beherakoentzat trena doan

Uztailaren 1etik 2025. urtea amaitu arte, 15 urtetik beherako gazteek trenez doan bidaiatu dezakete; Barrik, Mugi edo Bat txartel pertsonalizatua izanez gero. Urtarriletik 12 urtetik beherakoek baino ez zuten abantail hau, egiturazkoa dena, baina Euskadiko Garraioaren Lurralde Agintaritzak apirilean erabaki zuen adin tarte hori handitzea Espainiako Gobernuak martxan dituen hobarien testuinguruan.

Hemendik aurrera orain arte ordaintzen zituzten 59 zentimo ez dituzte ordaindu behar. Gainera, 16 eta 26 urteren arteko gazteek % 50 deskontua izaten jarraituko dute, eta gainontzeko biztanleriak % 40.

Euskotreneko garraibideetan doan bidaitu arren, bakarrik mugitze-ko 12 urte beherako haurrek bere gurasoen idatzizko baimena behar dute, bestela ezin izango dute garraioa erabiliko, oraina rte gertatzen zen bezala.

Larrabetzun Panpa-lezkarik Ez taldeak ale guztiak moztuko ditu

Udarekin panpa-lezkaren hedapena geldiarazteko “data kritikoak” hurbiltzen direla ohartarazi du Larrabetzun Panpa-Lezkarik Ez taldeak. Hori dela eta, ale guztiak moztuko ditu uztailaren 15etik abuztuaren 15era arte. Gainera, gogorarazi dute legeak behartzen dituela lursailen jabeak bere lurretan berdina egitera, horregatik, plataformaren kideek animatzen dituzte “egindako lanaren fruituak finkatzera” moztetarekin bat eginez.

“Horrela panpa-lezkei eragotziko diegu haziak daramatzaten lumamotosak ekoiztea. Gure soloetan sakabanatuko ziren milioika hazieta-rik aske geratuko dira, eta horrela ez dira ugalduko”, adierazi dute.

BERRI LABURRAK



Jesus Loroño omenduko du La Vueltako Bilbao-Bilbao etapak

Irailaren 3an ospatuko da La Vueltaren 11. etapa Bizkaian, ‘Bilbao-Bilbao’ izeneko tarte hori Txorierritik igaroko da, eta Jesus Loroño txirrindulari ospetsua omenduko du, bere jaiotegunaren 100. urteurrena bete baitzen joan den urtarrian. Hain zuzen ere, bere etxea izan zenaren aurretik igaroko da, Larrabetzuko Goikola baserriaren aurretik.

Jesus Loroñok 1957an irabazi zuen La Vuelta. Lasterketa hura Bilbo eta Gasteiz lotzen zituen etapa batekin hasi zen, eta Donostia eta Bilbo arteko 193 km-ko beste etapa batekin amaitu zen. Bere kirol-ibilbidean, Loroñok 65 garaipen lortu zituen profesional arituz zen hamasei denboraldietan.

“Loroño familia osoa, seme-alaba eta bilobak, oso pozik eta eskertuta gaude gure aitari omenaldia egingo diotelako bere jaiotegunaren mendeurrenean. Gure aita La Vueltako historiaren protagonista handienetako bat izan zen eta, urteek aurrera egin arren, haren lorpenak oraindik ere gogoan ditugu”, esan du hunkituta txirrindulariaren seme Josu Loroñok familiaren izenean.

ETAPAREN IBILBIDEA

‘Bilbao-Bilbao’ etapa San Mames estadioaren ingurunetik abiatuko da 13:30ean. Lasterketa Bilbotik irtengo da, Euskalduna zubitik, Loiuraino, bertan kokatuko baita etaparen hasiera (13:51), eta Mungiara joko du gero. 14:32ak aldera, txirrindulariak Bermeora iritsiko dira, aldeztu aurretik Sollube, 301 metroko desnibela duen hirugarren kategoriako


mendatea igo ostean. Etapari Sollube gaineko igoera gehitu diote Jesus Loroñoren aldeko omenaldiaren parte izan dadin; izan ere, mendi horren gailurrean dago kokatuta txirrindulari ospetsuaren oroimenezko monumentua. Lasterketa Larrabetzuko Goikola baserriaren aurretik igaroko da 15:52ak aldera.

Sollubez gain, mendate hauek zeharkatuko ditu etapak: Laukiz (183 metroko desnibela), Bizkaiko begiratokia (235 metroko desnibela), Morga (290 metroko desnibela), Elorritxueta (351 metroko desnibela duena eta bi aldiz igo beharko dutena) eta Pike Bidea (204 metroko desnibela).

Guztira 157,4 kilometro izango du haiaikagarren etapak. Ibilbide horretan Bizkaiko lurraldeko leku hauek zeharkatuko ditu: Arratzu, Basauri, Bilbao, Bermeo, Busturia, Derio, Erandio, Etxebarri, Forua, Galdakao, Gatika, Gernika-Lumo, Larrabetzu, Laukiz, Lezama, Loiu, Mendata, Meñaka, Morga, Mundaka, Mungia, Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz, Murueta, Muxika, Sondika, Sukarrieta eta Zamudio. Ibilbide honetan errepikatuko egingo da 2023ko Frantziako Tourraren Gran Départ irteerako lehenengo etapa, hain zuzen ere Bilbon hasi zena.

Txirrindulariak Bizkaiko hiriburura iritsiko dira 17:20-17:41 inguruan: Euskalduna zubitik sartuko dira eta helmuga Kale Nagusian izango dute zain (Gregorio de la Revilla kalearen parean). Txirrindulariak hirira sartuko diren bigarren aldian izango da hori, izan ere, 16:29an helmugatik lehen aldiz igaroko direla espero da.

BERRI LABURRAK



Heriotzen kopurua %15,6 igo zen Txorierrin 2024an

Eustatek argitaratu ditu heriotzen datuak, eta zehazten du iaz %0,4 pertsona gehiago hil zirela Euskal Eutonomia Erkidegoan. Bizkaiaren kasuan %1,4ko hazkundea egon zen, eta gurean, Txorierrin, heriotzen kopurua %15,6 igo zen. Aipatu behar da 2023an ohikoa den baino jende gutxiago zendu zela eskualdean, 200 lagun inguru hiltzen badira urtero, 2023an 186 bizilagun hil ziren, eta iaz, 215.

Zehazki, 29 lagun gehiago hil ziren 2024an eskualdean. Larrabetzuk pairatu zuen hazkunde nagusia bere hildakoak %53,3 igo baitziren 2023tik 2024ra: 15 pertsonatik 23ra pasatu zen udalerria. Ja-

rraian, Lezama dago, 19tik 27 hildakora heldu zen, %42,1eko hazkundea. Derion hildakoak %28,6 igo ziren, 14 pertsonen aldearekin 2023tik 2024ra. Urrun gelditzen dira Loeu, %12,5eko hazkundearekin, edo Sondika, %7koarekin. Zamudioren kasuan heriotzen kopurua %19,4 jaitsi zen iaz 2023rekin alderatuta.

Heriotza-tasa dagokionez Txorierrik Bizkaia eta Euskal Autonomia Erkidegoa baino tasa baxuagoa du, %9,8koa baita, baina oso gertu daude besteak, lurraldearen %10,4 eta erkidegokoa %10,1 baitira. Guztira, 22.392 heriotza erregistratu ziren EAEn, horietatik Bizkaian 12.041 heriotza izan ziren.

Bi mila kilometro basamortutik ELAren aurkako borrokaren alde

Azaroaren 28tik abenduaren 6ra arte Guillermo Jauregui eta Igor Salazar lezamarrek 'XXV. Raid Clásicos del Atlas' lasterketan parte hartuko dute bigarren bez, baina aurrean helburu zehatz batekin: alboko esklerosi amiotrofikoa (ELA) ezagutzera emateko eta gaixotasuna pairatzen dutenentzat dirua biltzeko.

"Biok dugu beste lagun bat, Oskar Argintxona, gaixotasuna duena; orain dela urtebete diagnostikoa eman zioten, eta erabaki genuen horrela lagundu nahi geniola". azaltzen du Jaureguik. Horregatik ADELA Bizkaia elkartearekin harremanetan jarri ziren autoan eramango duten publizitatearen dirua eskaintzeko.

Guztira 4 mila kilometro igaroko dituzte beren Mitsubishi Montero 4x4 ibilgailuarekin: mila kilometro Marokora heltzeko, 2.100 km lasterketan, eta beste mila etxera itzultzeko. Parte hartzeko bi mila euro ordaindu behar izan dituzte; halere, argi utzi dute bildutakoa ez da erabiliko haien izango dituzten gastuak ordaintzeko, dena ELAren aurkako borrokara bideratuko da.

E.Bilbao Bidaiak

Eskola garraioa
Kirol elkarteak
Ezkontzak
Txangoak
Jubilatu bidaia
Sagardotegiak
Kongresuak

eneko@bilbaobidaia.eus
663 231 001

yedra floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

TXORIERRI Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 SONDICA
944 711 282
info@inmobiliariatxorierrri.com

ADARVE KAFETEGIA

Gesariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

ASTIKENEMOTOR

www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781



T ANER MENTXAKA UCLAFILM & TELEVISION ARCHIVE

1936KO GERRAKO IRUDI BERRIAK (II)

Derio atzeragoardian

1937an gerrak gure bailara gurutzatu zuen, ekialdetik mendebaldera. Uztaileko aldizkarian Larabetzuko Goikoelexaldeko guda-irudiak genekartzan. Bertan gudariak eta herritarrak ikusten ziren botatako Heinkel He 51 hegazkinaren arrastoak kamioi batera igotzen. Oraingoan Deriora goaz, bertan grabatu bai ziren gerrako beste hainbat pasarte.

Berriki digitalizatu diren Hearst Metrotone News albiste agentzia estatu batuarraren irudien artean Txorierriko beste hainbat eszena identifikatu ahal izan ditugu. Hiru metraje desberdinetan Derioko bi lokalizazio agertzen dira.

Batetik, seminarioa bezala ezagutzen dugun eraikuntza ikus dezakegu. Ospitale psikiatrikoa behar zuen 1931n eraiki-

tzen hasitako mole erraldoi hura. 1936ko gerrak geldiarazi zuen proiektua hormigoizko hezurdura soilik altxatuta zuela. Eusko Jaurlaritzak bertako sotoan fabrika arma jarria zuen martxan eta maiatzaren 19an nazionalek eraikina bonbardatu zuten, kalte gutxi eraginez. Grabazioan bi kotxe sutan ikus ditzakegu eraikinaren atzealdean eta suhiltzaile kamoi ikusgarri bat ziztu bizian urreratzen. Hala ere,

kamarografoak irudiak maiatzaren 13an grabatuak izan zirela utzi zuen idatzia.

Ekainaren 13koak omen dira beste irudiak. Egun bat leheneago Nazionalek Gaztelumendin burdin-hesia apurtu eta erraz hartu zuten Txorierri. Frontea ekialdetik mendebaldera mugitzen zen bitartean herritar askok kontrako noranzkoa hartu zuten, lehen lerroko arriskuetatik ihesi. Irudietan ikus daiteke gaur Txorie-

rri etorbidea (BI-737) bezala ezagutzen dugun bidea, zuhaitz lerroek lagunduta. Derioko udaletxe berriak errazten digu kokalekua identifikatzen. Jende andana doa Zamudiora bidean, batzuk oinez, asko kamioietan. Ez dira gutxi militar nazionalak agur faxistarekin hartzen dituztenak, eskua altxatuz.

Hearst Metrotone News albiste agenciak Metro-Goldwyn Mayerren zinema aretoetan proiektatzen zituen ikus-entzunezko informatiboak. Goikoelexaldeko irudiak ez omen ziren zinematan ikusi, baina Derion grabatutakoak ekainaren 28an sortutako "Bilboko harra-paketaren lehen irudiak" albistegian ageri dira. Estatu Batuetako milioika pertsonak ikusi zuten Txorierri etorbidea jendez lepo, gerratik ihesi.



Bideoak ikusgai dituzu gure webgunean.

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

Ford Goiri'78
ZERBITZU OFIZIALA

944 532 515
goiritaller@fordgoiri.com

BOSCH Service
ATEKA
Bosch Car Service

946 740 456
ateka@bosch-bcs.com

Txorierri Etorbidea, 46 - Pab. 5C - 5D
SONDIKA

Centro Dental Txorierri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462

Mitxine 7, behea - 48150 Sondika (geltoki aurrean)
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885
www.cdtxorierri.es

ORTODONCIA21



GAIZKA PEÑAFIEL

LEZAMAKO JAIK

TIKER MOJÓN

Tradizioa eta modernitatea uztartuko dira Lezaman

Irailaren 2tik 15era arte ospatzeko aukera izango dute lezamarrek; eta aurten Tattak, Densok eta Kiliki Frexxkok osatzen dute jaien egitaraua. Kuadrillen Jaitsiera, Sukalki eta Tortilla txapelketa eta herriko taldeekin batera.

Udaren amaierarekin heltzen dira Lezamako jaiak: irailaren 2tik 15era arte San Antolin eguna, Andramariak, Bola-lekuko eta Kurtze auzoko jaiak ospatuko dituzte lezamarrek. Musika, karroza eta odolostearekin oporrei agur esango diete, eta aurten ere jai-batzordeak uztartuko ditu tradizioa eta euskal panorama musikala eraldatu duten artistak.

Irailaren 2an San Antolin eguna ospatzeko mokadu bat antolatu du Musika Txoroa taldeak meza ondoren. Barikuan Andramariak hasiko dira, eta tradizioa

denez deiadar egingo dute goizean. Arratsaldean, frontoian pilota-partidak jokatzen diren bitartean Kuadrillen Jaitsieraren egingo da. 18:00etan hasiko da, eta gutxi gorabehera 20 kuadrillak parte hartuko dute, aurtengo gaia mundu osoko herrialdeak dira.

Behin desfilea amaituta, pregoia emango eta txupina botako du Baserri-tarren Elkartek, bere 100. urteurrena baita. Gaua heldu baino lehen, kaleak girotuko dituzte Oilar Beltzak mariatxiek eta Txorierriko Sakatu elektrotxarangak.

23:30ean Maruri-Jatabetik etorriko da Aramu rock taldea, ondoren Tatta eta Denso artistak igoko dira eszenatokira. Egungo euskal musikari ezagunetari-koak dira, Spotify plataforman 130 mila erreproduzioak batzen dituzte hilero. Jaien lehenengo eguna amaitzeko Dj Sernak musika jarriko jarriko du 4:00ak arte.

Zapatua deiadarrarekin hasiko da, eta goizean zehar Pump track egingo du Zorribike txirrindularitza taldeak. Gainera, puzgarriak egongo dira umeentzat. 15:00etan herri bazkaria hasiko da, bai-



ANDRAMARIEK

Irailak 2, martitzena
San Antolinak

12:30 **Meza**

13:00 **Kopaua + Musika Txoroak**

Irailak 5, barikua

11:00 **Deiadarra**

18:00 **Pilota partidak**

18:00 **Kuadrilen jaitsiera**

19:00 **Txupinazoa eta pregoia**

19:30 **Oilar beltzak mariatxiak**

21:00 **Sakatu**

23:00 **Aramu eta Tatta Denso**

02:15 **Dj Serna**

Irailak 6, zapatua

11:00 **Deiadarra**

11:30 **Pump track eta puzgarriak**

15:00 **Herri-bazkaria**

16:00 **Bingo musikatua**

17:30 **Herri kirolak eta mus txapelketa**

22:00 **Orekka, Kiliki eta Pueblo 54**

Irailak 7, domeka
Odoloste Eguna

Odolosteak herriko tabernetan

11:00 **Deiadarra**

11:00 **Taloak** txosnagunean

12:30 **Meza**

13:00 **Ekidazu abesbatza eta Grupo
bailes de salon** Txosnagunean

17:30 **Kurutze dantza taldea**
Hilario Astorki plazan

Irailak 8, astelehena
Andramari eguna

12:30 **Meza**

Irailak 10, eguaztena
Bolalekuko jaiak

12:00 **Paellen inskripzioa**

14:00 **Paellen aurkezpena**

17:00 **Txokolatada**

17:30 **Egurren jolasak**

19:00 **Diskofesta**

KURTZEKO JAIK

Irailak 12, barikua

18:30 **Umeentzako puzgarriak**

20:00 **Txupinazoa eta odolosteak**
tabernetan, musikagaz girotuta

23:00 Erromeria: **Jotake**

Irailak 13, zapatua

09:00 **Aulki eta mahaien banaketa**

10:30 **VI Kurtzeko MTB-Gaztetxo
Martxa** Zorribikek antolatuta

11:00-13:00 **Ume eta gazteentzako
jolasak.** Uretako puzgarriak

11:00-12:00 **Sukalki eta Tortila Txa-
pelketarako izen-ematea** txosnan

12:30 **Dantza erakustaldia** Lezamako
areto dantza taldearen eskutik

14:00 **Tortila eta sukalkien aurkezpena**

16:30 **Ume eta gazteentzako jolasak**

17:30 **Herri BINGO (1)**

18:00 **Tolin Mariatxia**

19:30 **Herri BINGO (2)**

20:00 Kontzertua: **Fruitzariak**

20:00 **Bokatak**

22:30 **Sorgina erretzea**

23:00 Kontzertua: **Broken Izotz**

Irailak 14, domeka

11:30 **Euskal dantzak** Kurutze dantza
taldeagaz

12:30 **Meza** ta ostean **kopaua**

17:00 **III Mikel Llodioaren Memoriale
Lauko Txapelketa**

Irailak 15, astelehena

12:30 **Meza**



**KH LEZAMA
SUITES**

Atsedeen ederra
zure gonbidatuentzat

GRUPO KHL
www.grupokhl.com



**KH Limpiezas
Lezama**

607153505
657773412

AHAZTU KEZKAK!!
14€-tik aurrera

Etxeak Jatetxeak
Bankuak

Ostatu-turistikoak

khlimpiezaslezama@grupokhl.com
www.grupokhl.com

**LA
GUN
KOR**

Aretxalde, 68 - Lezama
944 556 538 · 607 209 343
lagunkor@lagunkor.com
www.ascosorialagunkor.com

AHOLKULARITZA FISKALA LABORALA KONTABLEA
ZERBITZU BULEGOA



na tiketak erosi beharko dira Lezamako dendetan eguna heldu baino lehen; baita bingo musikatuan jolasteko ere, Zorritzetan euskara elkarteak antolatu duena. 17:30ean herri kirolak ikusteko aukera dute lezamarrek, eta, ordu berean, Enaitz tabernan Mus Txapelketa egingo da.

Iluntzean Oreka erromeria taldea Lezama girotzen arituko da; ondoren, Kiliki Frexko Chill Mafia taldeko kide ohiak kontzertua emango du, bere azken bilduma aurkezteko: 'Iltze 1'. Behin amaituta, 2:00etan, Pueblo 54 artista lezamarrek kontzertua eskainiko du.

Domekan odoloste eguna izango da, beraz, herriko jatetxeetan eta tabernetan odolosteak izango dira dastatzeko, eta txosnetan taloak salduko dira. 13:00etan Ekidazu abesbatzak eta Lezamako aretoko dantza taldeak emanaldia egingo dute, aurtun txosnagunean egingo da. Arratsaldean, eta Andramariei amaiera emateko, Kurutze dantza taldeak ikuskizuna egingo du udaletxearen aurrean. Irailaren 8an, Andramari egunean, meza baino ez da egingo.

Halere, Lezaman ez da etenik egongo, eguaztenean Bola-lekuko jaiak ospatuko baitira. Paellen txapelketa izango da egunaren protagonista, eta 17:00etan txokolatada egingo da. Egur jolasak ere egongo dira, eta 19:00etan Diskofesta hasiko da iluntzera arte.

KURTZEKO JAIAK

Bi eguneko atsedeen eta gero Kurtzeko jaiak hasiko dira. Adin guztietako jendeak parte hartzen du jai hauetan, eta, horregatik, barikuko 18:30ean umeentzako puzgarriak izango dira. Ondoren, txupinazoa egingo da, eta auzoko tabernetan odolosteak dastatu ahalko dira, musikaz girotuta. Herriak herriarentzat egindako jaietan ezin da faltako Lezamako JOTAKE erromeria taldea, 23:00etan hasiko dira gaua girotzen.

Zapatuan herriak hain gustukoa di-tuen bi ekintza ospatuko dira: tortilla eta sukalki txapelketak. 14:00etan kuadrilla bakoitzak bere proposamena aurkeztuko du, baina izena eman beharko dute 11:00-12:00 bitartean. Gainera, goizean zehar

umeentzako ur puzgarriak egongo dira, eta VI Kurtzeko MTB gazte-martxa egingo da. Bestalde, eguerdian Lezamako aretoko dantza taldeak dantza erakustaldia egingo dute. Arratsaldean, jolasak, herri bingoa eta Tolin mariatxia izango dira. 20:00etan Fruiztariak taldeak kontzertua emango du, hori ikusteko bokatak salgai egingo dira. Ondoren, sorgina erreko da, eta eguna amaitzeko Txorierriko Broken Izotz taldeak kontzertua emango du.

Domekan, Santa Kurtze omentzeko, euskal dantzak erakustaldia egingo du Kurutzeko Dantza Taldeak meza baino lehen. Arratsalderako, III Mikel Llodio-ren Memoriala Lauko Txapelketa antolatu du Lezama Sport Kirol Taldeak.



2 0 2 5

algor. 260 | 17
2025eko abuztua

LEZAMAKO JAIAK

IRAILAK

V

VI

VII

barikua

19:30

OILAR BELTZAK (mariatxi)
SAKATU ELEKTROTXARANGA
ARAMU · TATTA & DENSO · DJ SERNA

zapatua

22:00

OREKKA ERROMERIA
KILIKI · PUEBLO 54
& FRIENDS





Amaiera eman diogu *Kaishop!* kanpainari Txorierrin

Txorierrin, Bizkaiko beste zenbait herrirekin batera, *Kaishop!* kanpaina eraman da aurrera. Horren helburu nagusiak izan dira, batetik, biztanleek tokian tokiko saltokietan kontsumitzea eta erostea, eta bestetik, hori euskaraz egin ahal izatea. Gainera, aurtun *Kaishop!* kanpainak Euskaraldiarekin bat egin du, ekimen biak elkar elikatuz.

Beste behin, aurtun ere arrakastatsuak izan dira 2025eko *Kaishop!* kanpainarako egin diren ekintzak, herritar askok gogoz parte hartu baitute.

Ekintza horietako bat *Kaishop!* **ibiltaria** izan da, herriko kaleetatik egindako galdera-erantzun jokoa, hain zuzen ere, eta hiru saiotan banatu dena:

maiatzaren 2an Derio, Loiu eta Sondikan, maiatzaren 9an Zamudio, Lezama eta Larrabetzun, eta maiatzaren 23an Zamudio, Lezama eta Sondikan. Saio horietan Txorierriko merkataritzarekin zerikusia duten galderak erantzutea eskatu zitzaaien kaleko pertsoneri, eta parte-hartzeagatik karteratxo bat irabazteaz gain, Eneko Atxaren jatetxean bi laguntzako bazkari baten zozketan sartzen ziren. Guztira 473 txorierritarrek hartu dute parte galdera-erantzun joko honetan. Beraz mila esker guztiei!

Nahi izan duten Txorierriko saltokiek ere, haien komertzioa sustatzeko eta euskaraz kontsumitzeko aukera emateko bidean, opariak eskaini dituzte eta

ondoren zozketatu egin dira inkestaren parte-hartzaileen artean. Aurtun parte hartu duten saltokiak honako hauek izan dira: Josune janari-denda, Esther fruta-denda, Museti jositegia, eta Nexis. Horrez gain, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatetik 50€-ko bi bono zozketatu dira.

Ondorioz, Txorierriko mankomunitateak eskerrak eman nahi dizkie alde batetik opariak eskaini dituzten saltokiei eta bestetik baita kanpaina parte hartu duten herritarrei ere, beste urte batez ezinbestekoak izan direlako 2025eko *Kaishop!* ekimen arrakastatsu hau aurrera eramateko.

Jarraitu Txorierrin euskaraz erosten!

Etorri berrien harrera eta integrazio protokolo inklusiboago bat eraikitzen jarraituko dugu zuei esker!



Txorierriko Mankomunitateak eta berau osatzen duten sei udalek eskerrak eman nahi dizkizuegu atzerititik etorritako pertsoneri zuzendutako harrera-protokoloa lantzeko ekimen egin diren hiru saioetan aktiboki parte hartu duzuen guztioi. Zuen inplikazioa eta ekarpenak eta bizipenak partekatzeak erakutsitako eskuzabaltasuna funtsezkoak izan dira prozesu kolektibo honetan aurrera egiteko.

Orain administrazioaren txanda da:

saioetan mahai gainean jarritako ideia, kezka eta beharrian guztiak jasota, konpromisoa hartzen dugu jasotako ekarpenekin erantzun bat emateko.

Irailean berriz elkar ikustea espero dugu, kontraste-saioan, landutako zirriborroa aurkezteko eta benetan baliagarria, hurbila eta eraldatzailea izango den protokolo bat elkarrekin eraikitzen jarraitzeko.

Eskerrik asko berriro ere zuen parte-hartze eta konfiantzagatik!



GazteEkin kirol programak

Alde batetik, Txorierriko “Gazteekin III. Txapelketa” jokatu da apiriletik ekainera arte, kasu honetan Padela izan da gazteek aukeratu duten kirola. Guztira, Sondikako eta Loiuko udal pistetan, 46 partidu jokatu dituzte txapelketan izena eman duten 19 bikoteek (Derioko 14 gazte, Larrabetzuko 1, Loiuko 2, Sondikako 15, Zamudioko 4 eta beste herrietako 3 gazte izanik). Parte hartzaileen batz besteko adina 24 urtekoa izan da. Esan behar dago, adin horretako gazteengana ailegatzeko zailtasunak daudela eta kirolaren bidez lortzen ari garela. Goraipatzekoa da, era berean, lehenengo aldiz,

neskak ere animatu direla parte hartzera: sei neskak hartu zuten parte.

Ekainaren 19an Sondikan jokatu ziren txapelketaren finalaurrekoak eta ekainaren 21ean finala: Larrabetzuko Peru Barandiaranek eta Sondikako Asier Corcuera, Gorka Garcia eta Mikel Duran Derioko bikoteari, irabazi zieten hiru orduko partidu berdindu eta lehia-tu baten ostean.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin garatzen ari garen Mundutik Txorierri programaren barruan, ekainaren 28an Lezamako kiroldegia ireki zela, futbol 5eko topaketa jokatu zen. Bertan 16 eta 29 urte bitarteko nazionali-

tate desberdinetako gazteak elkartu ziren. Txorierritik, Loiuko Zabaloetxe zentro-tik, Derioko Eguzkilore fundaziotik eta Mañarikuako egoitzatik etorritako gazteek 7 pertsonaz osatutako 4 taldetan elkarren artean 20 minutuko 6 partidu jokatu zituzten. Hemen irabazleak nortzuk izan ziren ez zuen izan garrantzirik, baizik eta gazteak, etorritako tokitik zetozela, goiz dibertigarri bat pasatu izana espazio bat partekatzen eta denok batera kirola egiten.

Eta badakizue, gazteentzako ekintza gehiago proposatu nahi izanez gero, jarri gurekin harremanetan kaleheztizalea@txorierri.eus helbidearen bitartez, edota 747 48 58 98 telefonoan (Josu).

TXORIERRIKO BERBAK

Bero handia, sapa eta txangota

Askok erritmo *nasai* gaz lotzen dabe uda; beste batzuk, barriz, danera ezin helduta ibiltzen dira, *artega*, astialdia be zehatz planifikatu guran.

Egunotan igarri dogun lez, sasoi honetan, bada sentsazio bat guztiok harrapatzen gaituana: beroa, bero handia. Gure artean, zelan esaten jako bero handiari?

Txangot berbea jaso eban R.M. Azkue lekeitiarrak (1906) bere hiztegi ederrean “bochorno más caluroso que *sargori*”. Leku bakarrean batu ei eban berbea, Txorierriin.

Alferrik bilatuko dugu Euskaltzaindiaren Hiztegi arauemailean, ez dago eta. Lokalegia da, itxura danez. *Beroa* versus *bero handia* bikotetik harago ñabardura ugari daukazu gure hizkuntzak, tokian tokiko berbak. Euskeraz gabilzanean, grisak be tonu ugari euki leikez.

Inguruan antzeko berbea batu eban lehen euskaltzainburuak: *txangori*. Aldaera hori Arratia, Gernika, Mundaka eta Orozkon entzun eban Azkuek.

Gure hizkuntza aberasteko, guztiaren preminan gagoz; idatzizkoek (hiztegiek, literaturak...) argia emon ahal deuskue, bai;

baina ahozkoak be pista ederrak emongo deuskuz nondik ibili jakin daigun. Ibili gaitzean begiak erne, belarriak zoli.

Beharbada, *bero-sapa* formea Txorierriko *txangota* baino gehiagotan entzungo genduan «sargoria» adierazoteko. *Sapa* berbeak zorte handia dauka: Euskaltzaindiaren Hiztegian agertzen da, “batez ere Iparraldean” markea euki arren.

Edozelan be, hurrekoakaz euskeraz berba egiten badogu, hango eta hemen go berbak entzun eta ikasiko doguz. Eta, jakina, hotz edo bero, tenperatura egokia emongo deusagu gure hizkuntzari.



TANER MENTXAKA

ERLANTZ GARCIA FERNANDEZ, KAKTUSERO
Kaktuszalea

“Pertsona bizia naiz eta kaktusekin aurkitu dut lasaitasuna”

Lehen orduan dugu hitzordua, eguerdian beroa jasanezina omen delako negutegian. Gainera, aquagymeko klasea du berandua Erlantzek (1990, Larrabetzu) igerilekuan. Kirol teknikaria da Larrabetzuko kirol-instalazioetan. Baina egunero negutegira doa lasaitasun bila. *Kaktusero* bezala aurki dezakezu sarean.

Ur gutxi eta arantza asko. Zergatik kaktusak?

Afizioa familiatik datorrit. Nire amamak Burgoseko herri batean du etxea eta beti gustatu zaizkio landareak izatea. Baina neguan inor ez zen etxean eta hil egiten zitzaizkion. Horregatik hasi zen kaktusak landatzen, negua ondo bizirauten zutelako. Umea nintzenean bertan ikusten nituen amomaren kaktusak. Berandua-go Galizan bizi den izeko bat hasi zen landare hauen bilduma egiten. Duela hamar bat urte bere etxetik ekarri ni-

“Afizioa familiatik datorrit. Txikitatik beti presente izan ditut amamak Burgoseko herrian zituen kaktusak”

tuen Larrabetzura ale batzuk. Baina nire orduko etxea ez zen oso argitsua

eta hil egin ziren. Urte batzuetara berriro ekarri nituen izekoren beste hogeit bat kaktus, etxe berrira. Hor hasi zen nire afizioa. Hasi nintzen espezie ezberdinak bilatzen, eta apurka apurka osatu dut nire bilduma. Pisuan 300 bat landare nituen, baina semea jaio behar zela eta, leku berri bat bilatu behar izan nien. Duela hiru bat urte hasi nintzen negutegiarekin. Egun milatik gora kaktus ditut, 600 espezie ezberdin. Afizio lasaia da. Ni oso bizia naiz, nire lana kirola da. Hemen, ordea, lasaitasuna aurkitzen dut.

Kaktusak eder mantentzeko hiru gomendio:

Kaktus bakoitzak ur kantitate desberdina behar du.

Badaude batzuk kalean utzita gure parajeetako hezetasuna onartzen dutenak. Baina beste batzuk delikatuak dira eta gehiago kontrolatu behar dituzu. Ureztatu aurretik, makiltxo bat sartu lurrean, siku dagoela ikusteko. Beste landareak ez bezala, kaktusen lurra guztiz sikatu behar da berriz ureztatu aurretik. Arriskua da gehiegizko ureztaketarekin sustraiak usteltzea. Urik ez badu kaktusa ez da haziko, baina ez da hilko.

Kaktusen lurra oso minerala izan behar du.

Lurrak parte organikoa eta parte minerala izan behar du, baina alde minerala gailendu behar da. Lurra oso solte egon behar du. Horretarako harritxoak edo perlita bota ahal zaio. Sustraiak ura xurgatzen duten bitartean hezetasuna mantenduko da, baina, era berean, sobran dagoena arin sikatuko da.

Argitsua den leku batean, baina aterpean.

Argi asko behar dute kaktusek. Etxeko leku argitsuenean jarri landarea eta aterpean badago hobe. Horrela jasotzen duen ur kantitatea kontrolatu ahalko duzu.



SUKALDEAK

insukaldeak.com

BILBAO

T. 94 402 82 54

Lehendakari Aguirre 175-177.
48015 Bilbao

DERIO

T. 94 656 85 69

Txorierriko etorb. 9. Ed. Arteaga.
48160 Derio

NAHI
DUZUN
SUKALDEA

20 urteko esperientziak bermatzen gaitu.
Doako finantzaketa.



Bildumako hiru kuttunak

Gymnocalycium

Mutazio genetiko baten ondorioz pigmentazio gutxiago eduki dute euren hazkuntzan eta kolore ezberdinekin hazi dira. Kolore berdea ematen dien klorofila galdu dute tarteta eta kolore gorritzka dute. Horrelako kaktusak oso preziatuak dira. Gero eta arraroagoak, direla mutazioak direla genetiko bakanak, balore gehiago dute. Forma eta koloreak oso erakargarriak egiten zaizkit. Gainera lorearen kolorea ere aldatzen da ale batetik bestera.

Euphorbia horrida

Berez ez, da kaktus bat. Euphorbiak sukulenta-landare familia-ren barnean daude eta bere berezitasuna da izerdia dutela. Oso arantza lodi eta arraroak ditu. Kolore berde erakargarria du.

Euphorbia lactea cristata

Hemen txertaketa bat ikus dezakegu. Bi kaktus espezie ezberdin dira, bata besteari gainean jarrita. Formak eta koloreak izugarriak dira. Pieza oso berezia da, tamaina handia lortu du, urte asko daramatza nirekin eta bildumako ale on bat da.



Gymnocalycium

Zaletasuna baino gehiago dira egun kaktusak?

Nire helburua ale ederrenen bilduma egitea da. Baina kaktus landareek kimuak izaten dituzte, ugaltu egiten dira eta landaretxo berriak sortu. Kimu hauek hazi eta saldu egiten ditut, bilduma mantentzeak suposatzen duen kostua pixkat arintzeko. Iaz Larrabetzuko bertoko produktuen azokara gonbidatu ninduten eta kriston arrakasta izan nuen. Arrietako azokan, Baserri Antzokian eta Larrabetzuko Txakoli egunean ere egon naiz. Instagram bidez ere kontaktatzen dute nirekin. Zuzenean negutegira etortzera gonbidatzen ditut euren kaktusa aukeratzera.

Instagramen kaktusero bezala aurki zaitzakegu. Egun 3000tik gora ja- rraitzaile dituzu. Kontua negutegia- rekin batera jaio zen?

Instagrameko kontua motibazioa da negutegia ondo jagon eta polita mantentzeko. Argazkiak eta bideoak egitea suposatzen dit negutegia kontrolpean

“Instagrameko kontua motibazioa da negutegia ondo jagon eta polita mantentzeko, dena kontrolpean eta ordenatuta edukitzeko”

eta ordenatuta mantentzea. Lana serioago eramateko arrazoi bat da. Bertan kontatzen dut nola egiten ditudan birlandatzeak, nola prestatzen dudana nire lurra... Egunero saiatzeko naiz nire kaktusen argazki berri bat igotzen.

Badago gurean kaktuszaleen komu- nitaterik?

Euskal Herrian oso gutxi. Ez dut ni bezalako zalerik ezagutzen. Donostian

badago kaktusen hazitegi bat... baina hemengo klima ez da kaktusentzat egokia, erraz usteldu ahal zaizkie sustraiak. Andaluzian eta Hego amerikar zaletasuna askoz handiagoa da.

Instagrameko lehenengo argitalpe- nak euskaraz egin zenituen. Baina gero gaztelaraz idaztera pasa zinen. Zaila da euskarazko edukiak sor- tzea sare sozialetan?

Frustrazio handia izan da niretzat. Euskaraz hasi nintzen edukiak igotzen, nire hizkuntza delako eta zerbait ezberdina egin nahi nuelako euskaraz. Baina Euskal Herri mailan ez dut ia jarraitzailearik. Gehienak hego-amerikarrak (argentinarrak, paraguayarrak eta txiletarrak bereziki) turkiarrak eta asiarrak dira. Orduan bi hizkuntzetan egiten hasi nintzen. Baina instagrameko itzultzaile automatikoa ez da euskararekin ondo moldatzen. Horregatik gaztelara hutsean sortzen ditut edukiak egun, nahiz eta saiatzeko naizen euskara presente edukitzen.



Euphorbia horrida



Euphorbia lactea cristata

Ekin eta ekin 35 urtez. Publikoa, irekia, guztiontzat.



**TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA**



UDAKO IKASTAROAK (UZTAILEAN ETA IRAILEAN)

NOIZ	HELBURUA	ORDUTEGIA	ORDU KOPURUA	IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA	MATRIKULA- PREZIOA
Uztailaren 1etik 24ra	Maila guztiak	9:00-14:30	90 ordu	Ekainaren 24a	111,6 €
Irailaren 9tik 29ra	Maila guztiak	Egunean 5 ordu	90 ordu	Uztailaren 12a	111,6 €
Irailaren 9tik 29ra	Mintzamena B1-B2-C1	Egunean 3 ordu	45 ordu	Uztailaren 22a	55,8 €
Irailaren 9tik 29ra*	B1-B2-C1	9:00-12:00 edo 16:00-19:00	45 ordu	Uztailaren 22a	55,8€


*HABEren delaldi itxira joan diren ikasleentzat baino ez. Lehen delaldira sarkeztu diren ikasleak izan behar dira, idatzian edo ahozkoan gainditu ez dutenak; baita lehen delaldira joan ezin izan direnak ere, ekainean maila lortu dutelako.

MATRIKULA ZABALIK, INFORMA ZAITEZ!

Herriko Plaza 3 - DERIO

944 540 062

euskaltegia@txorierri.eus



MATCHDAY

PM Derio
27 de Abril
11:00 (H)

pozgarri fem
v otxartabe

POZGARRI FST

POZGARRI FST

Areto-futbolaren ederra

Zuzendaritza berriak presentzia handiagoa nahi zuen sare sozialetan. Derioko Pozgarri Areto-futbol klubak hiru talde ditu egun kategoria desberdinetan eta babesle berrien arreta erakarri nahi izan du komunikazio kanpaina berriaren bitartez. Ondo jagondako argazki eta diseinuz bete du bere Instagram kontua denboraldi osoan zehar, hemen adibide batzuk. Irailetik aurrera jarraituko omen dute aretoko futbolaren alde ederrena erakusten.





*leioa ibaraki C
v pozgarri B*

Sakoneta
13 de Marzo
16:00 (H)

TALDEA



GURENA
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK



Babespeko apartamentuak
ZURE NEURRIRA

LOIU
Unbe txiki bidea 9
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)
944 530 049
www.gurena.com



IKER MOJÓN IDOIA ANDRES

LARRABETZUKO JAIAK

Castell ikuskizunak, herriko artistak eta aparteko giroa jaiak ospatzeko

Intxurreta jai-batzordeak egitarau zabala antolatu du Andramari eta Emeterietarako, herritarren laguntzarekin. Aurten, Hori Bai Gaztetxeak botako du txupina bere 60.urteurrena baita.

Urtero legez Intxurreta jai-batzordeak egitaraua prestatu du abuztuan zehar, akerrek Andramariak eta Emeteriak ospa ditzaizen. Akarmari prest dago Larrabetzuko jaietan gozatzeko, eta berarekin batera arituko dira txistulariak eta Paskula, Matxin eta Akarbaltz buruhandiak; musika eta bertako artistak ere ez dira faltako. Gainera, 10 urte betetzen direnez Colla Castellera Minyons de Terrassa taldeak Larrabetzun emanaldi bat eman zuenetik, aurten *Castells* egingo dira Larrabetzuko jaietan.

Ohitura denez, txupinazoaren aurreko egunetan umeen eta helduen fut-

bol-txapelketarekin hasiko da egitaraua. Abuztuaren 12an 17:00etan izango dira txapelketaren kanporaketak, eta hurrengo egunean ordu berean finalaurrekoak eta finala jokatu dira. Abuztuaren 9a baino lehen eman daiteke izena igerilekuan edo intxurretajaibatzordea@gmail.com helbide elektronikora idatziz.

Horren ostean, hilaren 13an, eguaztean, Paul Zorrozu Intxurreta Jai Batzordeko kidearen ustez, "jaietako ekintzarik garrantzitsuenetako bat" izango dute akerrek 20:00etan: herri-afaria. Plazan elkartzeko eta jateko aukera izango dute, eta, ondoren, 22:30etan Kantuz Kantu hasiko da. Bi zatitan banatzen da ekintza hau:

batetik, herriko musikariek bizilagunekin kanta batzuk abestuko dituzte; bestetik, talentu lehiaketa egingo da, non herri-tarrek izena emateko aukera daukaten. Banaka, binaka edo kuadrillak parte har dezakete, eta txosnetan apuntatu behar dira; dagoen baldintza bakarra euskaraz egitea da.

Eguenarekin batera txupinazoa helduko da, baina aurten hori baino lehen triatlói herrikoia berreskuratu dute: "Orain dela 8 edo 10 urte egiten zen eta jende askok parte hartzen zuen, oso arrakastatsua zen". 17:00etan izango da, eta, ostean, txupinazoari ekingo diote.

Aurten, txupina Hori Bai Gaztetxeak



ANDRAMARIEK

Abuztuak 12, martitzena

17:00 **Ume eta helduen futbol txapelketa** (Kanporaketak)

Abuztuak 13, eguaztena

17:00 **Ume eta helduen futbol txapelketa** (finalaurrekoak/finala)

20:00 **Herri afaria**

22:30 **Kantuz kantu** herriko musika-rien eskutik eta talentu lehiaketa

Abuztuak 14, eguena

17:00 **Triatloi herrikoia**

19:00 **Txupinazoa**, Hori Bain eskutik, herriko txistulari, Akarmari, Paskuala, Matxin, Jesusa eta Akarbaltzegaz.

Ostean, **Ustekabe txaranga**

22:00 **Diskodantza**

00:00 Erromeria: **Bide Batez**

Ostean, **DJ Fifi ta Fefa**

Abuztuak 15, barikua

11:00 **Kalejira**

12:00 **Dantza ikuskizuna** Bizkargi dantza elkartearen eskutik

Ostean, **Ustekabe txaranga**

18:30 **Karrozak**

20:30 Kataluniako **Colla Castellera Minyons de Terrassa** taldearen ikus-kizuna.

00:00 Erromeria: **Zirkinik bez**

Ostean, **DJ Reimy**

Abuztuak 16, zapatua

11:00 **Kalejira**

11:30 **Puzgarriak** igerilekuetan

13:00 **Kantarrana Band**

14:00 **Umeen bazkaria** Txinpasmendi guraso elkartearen eskutik

14:30 **Sukalki txapelketa**

15:30 **Umeen jolasak** plaza inguruan

18:00 **Poteo rallya**

20:00 **Elektrotxorongo** elektrotxaranga

23:00 **Dantza lehiaketa**

00:00 Erromeria: **Trikizio**

EMETERIEK

Abuztuak 30, zapatua

11:30 **Zirko tailerra** Etxafleruekaz

12:30 **Txupinazoa**

13:00 **Apar jaia** txokoan

14:30 **Marmitako txapelketa**

17:00 **Mus eta Briska** txapelketa

18:00 **Kalejira**

20:00 **Kalean** txaranga

22:30 **Etxafleruek**

23:30 Erromeria: **Zutik**

Ostean, **DJ Behekosolo** eta **DJ Ma-trakas**

Abuztuak 31, domeka

11:00 **Txori harraparien erakusketa**

13:00 **Bertsolariak**: Onintza Enbeita eta Angel Mari Peñagarikano

17:00 Herri kirolak

ostean, Kalejira herriko txistulari, Akarmari, Paskuala, Matxin, Jesusa eta Akarbaltzegaz.

19:00 Bingo musikatua

Irailak 1, astelehena

11:00 **Umeen jolasak**

Ostean, **Kalejira**





botako du, bere 60. urteurrena baita. “Aukera onena eta logikoen zela erabaki genuen”, dioenez Paul Zorrozuak. Haiekin arituko dira Akarmari, erraldoiak, buruhandiak eta iazko omenduak: herriko txistulariak. Jarraian Ustekabe txaranga eibartarra kalez kale joango da giroa berotzeko. “Iaz izan zuten harrera ikusita, aurtan mantentzea erabaki dugu”, dio Zorrozuak.

Gaueko 22:00etan hasiko da Diskodantza, batez ere umeentzat, baina gauerako “beroketa lana” izan daiteke helduentzat, dioenez Jai Batzordeko kideak. Gauerdian erromeria hasiko da Bide Batez taldearen eskutik, eta 3:00ak arte luzatuko da, ondoren, Lesakako Fifi ta Fefa DJak izango dira girotzearen arduradunak gaua amaitu arte.

Abuztuaren 15ean, barikuan, “egun potoloa” helduko da Andra Mari eguna baita. Goizetik hasiko da programazioa:

Akarmari, txistulariak eta buruhandiak kalejiran irtengo dira 11:00etan, eta 12:00etan dantza ikuskizuna emango du Larrabetzuko Bizkargi Dantza Elkartek. Jarraian, eta goizari amaiera emateko, Ustekabe txaranga kalez kale ibiliko da berriro 15:30ak arte.

Bazkaltzeko etena eta gero, 18:30etan karrozak egongo dira. Hori baino lehen, 18:00etan, Elkartegian desfilerako ordena zozketatuko da. Urtero gutxi gorabehera 16 kuadrillak parte hartzen dute desfile honetan: “Kalea beteta egoten da, eta herriarrek itzelezko harrera egiten diote desfileare; asko gustatzen den jardueretako bat da”. Karrozek ikuskizun txiki bat egingo dute plazan, askoz jota bi minutukoa.

Aurtengo jaietarako sorpresa txiki bat prestatu du jai-batzordeak, eta barikua- ren 20:30etan izango da: orain dela 10 urte etorri zen Colla Castellera Minyons

de Terrassa taldea berriro etorriko da Larrabetzura, bere *Castell* ikuskizunak erakusteko. “Hamar urte bete direnez, gurekin harremanetan jarri ziren herrira itzultzeko, jendeak ez du espero, baina poztasun handiz hartuko du”, aitortu du Paul Zorrozuak. 200 lagun inguru etorriko dira abuztuaren 15ean, eta emanaldia egiteaz gain, herritarrekin batera ere egingo dituzte Castell ikuskizunak: “Katalunia eta Euskal Herriaren arteko anaiatasuna agerian geratuko da”.

Gauerdian Zirkinik Bez taldearen eskutik gozatzeko aukera izango dute, eta, ondoren, DJ Reimyren txanda helduko da. Aurtan kalez kale joan beharrean, plazan egongo da modu finkoan gaua amaitu arte.

Zapatuarekin, abuztuaren 16arekin, Andramariei amaiera emango diote akerrek. Kalejirak girotuta hasiko da goiza, eta 11:30etatik aurrera puzgarriak izango





**Jaietarako
kamisetak, zapiak...
Biniloak, roll-up, lonak
Dan dana
PERTSONALIZATUTA**

94 441 27 27
info@grabadosgmp.com

**Andra Mari, 37 – elkartegi, pab.12
48195 LARRABETZU (Bizkaia)**



**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Basernko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

LARRABETZUKO JAIK 2025

afkor 260 | 29
2025eko abuztua

**ABUZTUAK 14, 15, 16, 30, 31
ETA IRAILAK 1**



Tasarak babesteko
ekimena
Iniciativa en apoyo
de las buenas

INTXURRETA JAI BATZORDEA

LAGUNTZAILEA



LA
RRA
BE
TZU

Herri-argazki



dira igerilekuetan. 13:00etan Kantarra-na Band taldeak musika joko du. Ostean, Txinpasmendi gurasoen elkartearen eskutik, umeen bazkaria izango da 14:00etan, eta ordu erdi beranduago sukalki txapelketa egingo da. Bazkalostean umeen jolasak egongo dira plaza inguruan, eta euria egi-ten badu eskolako aterpean.

Arratsaldean poteo rallya izango da, eta hainbat erronkari aurre egin behar-ko diete kuadrillek herriko tabernetan. 20:00etan Elektrotxorongok herria gaue-rako berotuko du. 23:00etan dantza le-
hiaketa izango da, bikoteek zerrenda ba-
ten 8 abesti dantzatu beharko dute, baina
ez dute jakingo zein diren eszenatokira
igo arte; parte hartzeko izena eman be-
harko da txosnetan. Eguna Trikizioren
erromeriarekin amaituko da.

EMETERIAK

Halere, jaiak ez dira amaituko Andra-mariekin, handik bi astera Goikolexea auzoan Emeteriak ospatuko dira. Txu-pinazoa abuztuaren 30ean botako dute, 12:30etan, eta hori baino lehen 11:30etan Zirko tailerra egingo da lehenengo aldiz. Ondoren, apar-jaiak egongo da txokoan. Marmitako txapelketa 14:30etan izan-
go da, baina hori baino lehen 10:00etan
aulkiak eta mahaiak bananduko dira. Arratsaldean Mus eta Briska-txapelketak
izango dira, eta 18:00etan kalejira. Hau
amaitzean Klean txarangaren txanda
helduko da, gutxi gorabehera 22:30 arte
egongo dira, momentu horretan etxa-
fleruek bere piroteknia espektakulua
egingo baitute. Amaitu ondoren Zutik
erromeria taldea hasiko da, eta ostean Be-
hekosolo eta Matrakas herriko Djak ager-
tokira igoko dira.

Domeka txori harraparien erakus-
keta batekin hasiko da, eta gero, tra-
dizioa denez, bertso saioa egingo da,
aurten Onintza Enbeita eta Anjel Mari
Peñagarikano bertsolarien eskutik. 17:00etan herri kirolak egongo dira
eta amaitu bezain pronto txistulariak,
erraldoiak eta buruhandiak kalejiran

irtengo dira. 19:00etan bingo musi-
katua egingo da eta eguna amaitzeko
Eguen bakoitiak herriko taldearen
kontzertua egingo da.

Irailaren 1ean, umeen jolasak egingo
dira 11:00etan, eta jaiak amaiera eman-
go die Txistulariek, Akarmarik, Paskua-
lak, Matxinek, Jesusak eta Akarbaltzek
girotutako kalejirak.

Betiko moduan, Intxurreta jai-batzor-
deak herriarentzako egitaraua prestatu
du urtean zehar haiekin elkarlanean ari-
tu diren Larrabetzuko eragileen eskutik.
Helburua aker guztiek jaiak gozatzea da,
eta horri lotuta argi utzi dute ez dutela
inongo erasorik onartuko, horregatik es-
katzen dute edozein indarkeria jasanez
gero, txosnetara jotzeko.



ILARGIAREN ALDIAK

Ziklo obarikoa edo ziklo menstrual?

MARIA GARABIETA MARTINEZ
Emagina @maria_garabieta



Emakume bezala, gure gorputzen eta prozesuen jabe izan nahi baldin badugu, argi dago gizarte honetan ez dugula erraz izango. Lehenengo pausua, burujabetasunak duen garrantziaz kontzientzia hartzea da. Bigarrena, gure gorputza ezagutzen hastea.

Gure gorputza ezagutzen ez baldin badugu, oso zaila izango da gure osasunaren inguruko erabaki autonomoak hartzea. Gure organo, sistema eta hauetan gertatzen diren prozesuen normaltasuna zein den ezagutzen ez baldin badugu, ez dugu inoiz jakingo noiz ari garen normaltasun horretatik ateratzen. Ez hori bakarrik, ez baldin badakigu gure gorputzetan gertatzen ari dena fisiologikoa den ala ez, beste norbaitengan jarri beharko dugu ardura hori. Eta hau da orokorrean gertatzen dena, gure gorputzekiko erabakiak besteengan jartzen ditugula, orokorrean, osasun profesional eta erakundeetan.

Emakumeen fisiologiari buruz hitz egiten dugunean, sistema gonadalaren inguruan hitz egiten dugu, adibidez. Sistema hormonal sexuala ere deitzen zaio eta gure funtzionamendu egokiaren ardatz garrantzitsu bat da. Sistema honek funtzionatu ahal izateko, alde batetik

garunak hormona jakin batzuk jariatu behar ditu. Bestetik, obulutegiek hormona horiei kasu egin behar diote. Beraz, behintzat, garun eta obulutegien arteko komunikazio egoki bat euki behar dugu. Komunikazio honen helburu garrantzitsuenetarikoa bat izango da obulutegietan dauden folikuluak (etorkizunean obulu izango diren zelulak) ondo heltzea eta horietarikoa bat apurtzea.

Beraz, ziklo menstrualaren inguruan hitz egiten dugunean, zorrotzak baldin bagara, ez gara ari hilerokoaren inguruan hitz egiten, baizik eta Ziklo Obarikoaren inguruan. Hau da, zikloaren helburua ez da hilerokoa, obulazioa baizik (folikulu baten apurketa). Ahaztu hilerokoa, folikuluen heltze prozesuaren ondorioz gertatzen den sintoma bat besterik ez baita hau. Beraz, zikloaren lehenengo egunetik, garunak hormona folikulo estimulantea (FSHa) jariatuko du, obulutegi bakoitzeko dozena bat folikulu heltzeko. Horietarikoa bakarria izango da ondo heldu eta apurtuko dena. Folikulu bat ondo helduta dagonean, hormona luteinizatzailea (LHa) jariatuko da prest dagoen folikulu hori apurtu ahal izateko. Hala bada, folikulu barruko obulua

askatu egingo da, obulazioa gertatuz, eta folikulu horren gainontzekoa gorputz luteo bihurtuko da. Hortxe daude Ziklo Menstrualaren (edo hobeto ezanda ziklo obarikoa) bi faseak. Folikuluen heltze prozesua, edo Fase Folikularra, eta gorputz luteoaren sorrera, edo Fase Luteoa.

Emakume bakoitzarentzat faseen iraupena ezberdina izango da, eta, beraz, zikloaren iraupena ere bai. Ez hori bakarrik, Fase folikularrak ez dauka iraupen finko bat, emakume bakoitzak eta ziklo bakoitzean denbora ezberdina behar izango dugu folikulu horiek modu egokian heltzeko. Fase luteoa ordea, egonkorragoa da, gutxienez 12 egun eta gehienez 16 egun iraun ditzazke. Ondorioz, gure zikloen iraupena, fase folikularren araberrakoa izango da. Zenbat eta gehiago iraun folikuluek heltzen, ziklo luzeagoa. Zenbat eta lehenago obulatu, ziklo laburrakoa. Baina kontuz, fase luteoan arazoak baldin badaude, hau ere laburtu daiteke eta gorputz luteoaren defizientzia bat izan dezakegu.

Beraz, nola jakin dezakegu gure zikloa osasuntsua den ala ez? Gure fase folikularra eta luteoa nolakoak diren behatzen. Eta hau hurrengoan ikusiko dugu.

Alde-afaindegia
M^a Antonia Llodio
Txorierko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

OAKLAND
ENGLISH
L. LEIZAOLA PLAZA, 2 - ZAMUDIO
946 522 857

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87
Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa
Urbe 7, beheko
48160 DERIO (Bizkaia)
—Especialitate guztiak
zentro bakar batean
—Aurrekontuak doan
—Especialitateak:
umeak



NAGORE LOPATEGI ESCALLADA
Komunitatearen eraldaketarako teknikaria

EMAUS

Kartoizko etxeak

"Kartoizko etxea" Ignacio Pérez Jofreren proposamena da. Artista izateaz gainera, Pérez Arte Ederretako irakaslea da, eta 2013an, Emaús Galiciako kideekin batera, egitasmo kolaboratibo bat bultzatu zuen, etxebizitzarako eskubidea ikusgai egiteko. Hamarkada bat baino gehiago pasatu dela, 2024an performancea berriro egin zen Derion eta Donostian, eta beste esanahi bat eman zitzaion. Egitasmoa *Nómada* jaialdiaren baitan egin zen, zeina Emaús Gizarte Fundazioak bultzatzen duen arte eta inklusio-festibala baita.

Arte-ekintzatik haratago, egitasmoa ekintza politikotzat hartzen da. Proposamen honen bidez ikusgai egiten dira ertzetan bizi direnak, hiria eraikitzen dutenak eta bertan bizi direnak. Baina hiriak, hala ere, ez die leku segururik eta habitagarriarik ematen. Kartoia, material hauskorra, xumea eta egunerokoa dena, erresistentzia-ikur bihurtzen da: hainbeste pertsonak jasaten duten egurats zabalari buruz ez ezik, gizarte-bazterketari aurre egiten dioten sormenari, duintasunari eta erantzuteko gaitasunari buruz ere hitz egiten du.

Ekimenak zuzenean itxerlatzen du hirirako eskubidea: kaleetatik ibiltzen den eskubidea da, kaleak eraldatzen dituen, haiei buruz erabakitzen duena eta behetik habitat duina eraikitzen duena. "Kartoizko etxea" egitasmoak hiri-injustiziari aurrez aurre begiratzera bultzatzen gaitu, eta erdigunean pertsonak ipintzen dituen eredu baten alde egitera. Elkarrekin hiri

habitagarriak, inklusiboak, justuak eta jasagarriak eraikitzeke deia da. Bizitza bakoitzak garrantzia duen hiriak dira, kanpoan inor gelditzen ez den hiriak.

Oraingo honetan, erakusketa "Kultura eta herritarrak, hiri habitagarriak eraikitzean" jardunaldietan ipintzeko aukera izan dugu. Jardunaldiak KCD gobernu kanpoko erakundeak antolatu zituen eta EHUKo Bizkaia Aretoan egin ziren, Bilbon. Topaketan hainbat herrialdeetako erakundeak, aktibistak eta profesionalak batu ziren, hala nola Euskal Herrikoak, Kubakoak, Mexikokoak eta Senegalekoak. Helburua izan zen elkarrekin hausnartzea hiri justuagoak, onberagoak eta jasagarriak nola eraiki. Jardunaldiek bi egun iraun zuten. Egun bizi-biziak izan ziren, zeinetan elkarriketak eta hartu-emanak nagusi izan ziren. Gainera, "Kartoizko etxea" arte komunitarioko proposamena bihurtu zen partekatutako helburuen ikur eta sintesi.

ETENGABEKO BILAKAERA

Erakusketaren atzean badaude taldean pasatutako lan-ordu asko, hausnarketa-eta sormen-ordu asko. Hainbat egunetan, eta Bilboko Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiarekin elkarlanean, Emaúseko gizarte-programetako kide batzuk lanean hasi ginen. Berriz erabiltzeko kartoia, artaziak, itsasgarria eta irudimen handia erabilita, hainbat eratako eta tamainatako etxeak eraikiz joan ginen, baita ospitaleak eta eskolak ere. Guztion artean identifikatu genituen etxerik ez duten pertsonen euren burua babesten duten

lekuak, hala nola elizpeak, markesinak, zubiak... Ohiko lekuak dira eta jendea haietatik pasatzen da; beste aukerarik ez dagoenean, babesleku bihurtzen dira.

Parte hartzeko prozesua "Kartoizko etxea" egitasmoan jasotzen da, zeina instalazio kolaboratiboa eta irekia baita, eta etengabeko bilakaera du. Lan itxia ez denez, publikoa gonbidatzen du prozesuaren parte aktiboa izatera: bere kaleetatik ibili, hirian bizi izateko beste modu batzuk asmatu, etxe berriak eraiki... Begiratzeari gaintzen duen proposamena da, esperientzia partekatua bihurtzen dena. Izan ere, "Kartoizko etxea" proiektuan parte hartzen duenak ikusi ez ezik, sortu, ekarpena egin eta eraldatu ere egiten du.

Aurrekoari lotuta, ezin dugu hiri habitagarriari buruz hitz egin, etxebizitzari dagokionez muturreko bazterketa-egoeran daudenak kontuan hartzen ez baditugu. Gure lurraldeetan handituz doan errealitate kezkarria da etxegabetasuna. Eustateko 2022ko datuen arabera, Euskadin 4.456 pertsonak ez dute etxerik, eta % 72,4 atzerritarrak dira. Segurua ez den leku batean bizi izatea ez da bakarrik egurats zabalean egotea: bakartasunean, segurtasunik ezan eta txirotasunean bizi izatea ere bada.

Emaús Gizarte Fundazioak aldarrikatzen du sortzeko eta hausnartzeko guneak atontzeko beharra. "Kartoizko etxea" egitasmoa moduan, gune horietan artea tresna bilakatzen da, hiriak behetik irudikatzeke, eraikitzeke eta bizi izateke; kolektiboa denetik, zaintzatik. Hori baita etorkizun justu eta inklusibo baterantz aurrera egiteko modu bakarra.

TEKNOLOGIA

XABIER DIAZ

@xa2_baraka@mastodon.eus

FREEPIK / VWALAKTE

Zientzia, teknologia eta politika: Uranioaren aberastea

Ekainean, Israeliek eta Estatu Batuek Iran bonbardatu zuten arma nuklearren garapena ekiditeko aitzakiarekin. Ez da lehenengo aldia herrialde bi hauek zein Nazioarteko Energia Atomikoaren Agentziak (IAEA) hori salatzen dutela baina, zer da Iranen uranioaren aberastearen atzean dagoena?

Zientziaren eta politikaren arteko mugak ez dira beti garbiak. Teknologia nuklearra horren adibide garbia da: energia sortzeko gaitasuna duen teknika bera arma suntsitzailer bihurtu daiteke.

Uranioa berez lurrian dagoen elementu bat da, baina bere erabilera nuklearra isotopoen arteko proportzioan dago. Isotopoak, elementu jakin baten mota desberdinak dira. Denek protoi kopuru berdina baina neutroi kopuru desberdina dute, beraz pisu desberdina ere. Naturan aurkitzen den uranioaren zati txiki bat —%0,7 inguru— da U-235 (92 protoi, 143 neutroi), energia nuklearra sortzeko eta arma nuklearrak egiteko erabil daitezkeen isotopoa.

Aberaste prozesuak isotopo horren portzentaje handitzea du helburu. Horretarako, zentrifugadoreak erabiltzen dira: makina hauek uranioaren isotopo arinagoak (U-235) eta astunagoak (U-238) bereizten dituzte biraketa azkar baten bidez. Zenbat eta

zentrifugadore gehiago eta eraginkorrago izan, orduan eta azkarrago lor daiteke aberaste maila altua. Iranek milaka zentrifugadore ditu martxan, eta horietako batzuk, azken generazioko IR-6 modeloak oso aurreratuak dira, uranioaren aberaste prozesua bizkortzen dutenak.

Badirudi, Iranek azken urteetan %60 arteko aberaste mailara iritsi da. Arma nuklear bat egiteko berriz, uranioaren aberaste maila %90 ingurukoa izan behar da. Adituek diote Iranek ez duela oraindik arma nuklear bat garatu, baina teknologia eta materialak eskuragarri baditu. Horrek IAEAn kezka sortzen du, batez ere Irani ezarritako kontrol mekanismoak eta ikuskaritza neurriak zalantzan daudenean.

Zientziaren ikuspegitik, uranioaren aberastea prozesu konplexua da, eta ikusten dugun bezala teknologia nuklearra ez dela soilik energia sortzeko tresna, bere erabilera militarrek mundu mailako oreka geopolitikoa baldintzatzen duelarik. Hainbat estatuk armategi nuklear handia dute, Estatu Batuak eta Israel barne, eta horietako batzuen arteko gerra arriskua ez da txikia (India eta Pakistanen arteko liskarrak).

Eta hori gutxi ez balitz, botoi gorri horietako batzuk, ganorabakoen eskutan daude jada.

Nazioartean aitortutako estatu nuklearrak, Arma Nuklearrak Ez Ugaritzeko Ituna (TNP) sinatzaileak

Estatu Batuak 3.700 arma nuklear inguru

Errusia 4.309 arma nuklear inguru

Txina 600 arma nuklear (hazkunde nabarmena azken urteetan)

Frantzia 290 arma nuklear

Erresuma Batua 225 arma nuklear

TNP sinatu ez duten baina arma nuklearrak dituzten herrialdeak

India 180 arma nuklear

Pakistan 170 arma nuklear

Israel 90 arma nuklear (ez du ofizialki aitortu, baina uste da badituela)

TNPtik irten eta proba nuklearrak egin dituen herrialdea

Ipar Korea 50 arma nuklear inguru, 2006tik hainbat proba egin ditu

HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
Tel.: 944 520 825
48170 ZAMUDIO

PATXI
OSTALARI ZARAKO ZERBITZU INTEGRALA
40 URTE ZUGANDIK GERTU
www.patxi.koop.eus
f t i n
Neimber Poligonoa / Etxezarre 4, 48170 / Zamudio / 944 522 587 / info@patxi.koop.eus

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO
EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI
libriariapapeleria zamudio@hotmail.com
Gorbea kalea, 4 - ZAMUDIO - 944 522 910



1 Gazeoko margoak



2 Alaitzako margoak

**IÑAKI OLABARRIETA
JOSE ANGEL MENTXAKA**

MENDITIK PATXADAZ

Gazeo eta Alaitza, bi harribitxi Arabako lautadan

Arabako lautadara hurbilduko gara. Bertan artikulu askotarako materiala dagoen arren bi harribitxitan jarriko dugu arreta: Gazeoko eta Alaitzako elizetako margoetan. Hala ere, ingurua ere ezagutuko dugu, Agurain herria, Sorginetxe dolmena, haritz zaharren baso ikusgarria, hegaztien babesgunea den hezegunea... badago nondik ibili. Horri guztiari gehitu bertatik igarotzen diren bideak: Santiago bidearen adar bat, ardoa eta arrainaren GR 38a, lautadako birako GR25a eta vasco-navarro trena izandakoaren bide-berdea.

Gazeo eta Alaitza elizak ezagutzeko erarik onena aurretik bisita gidatua erreserbatzea da Aguraingo turismo bulegora deituta (945 30 29 31). Gazeoko elizan hasi dugu bisita: Tourseko San Martinen omenez eraikitako eliza honek hainbat aldaketa eta zaharberritze izan ditu, ez beti egokiegiak. Benetako balioa barruan du: Euskal Herriko horma-margo gotikorik handiena. 1967an deskubritu zen erretaularen atzean eta XIV. mendeko sinesmen erlijiosoetara garamatza, beraien zeru eta infernuarekin.

Hurrengo geldidunea Alaitzako Andra Mariren eliza izan da. Bertan margotuta dagoenak harrituta utzi gaitu, ez du zer ikusirik Gazeon ikusitakoarekin. 1982. an deskubritu ziren eta hainbat figura gorri misterioitsu daude margotuta, antza denez XII-XIII. mendetakoak. Oso motibo erlijioso gutxi ditu eta garaiko pertso-

naiak aurkitu daitezke: gerlariak gaztelu bati erasoka, emakume bat erditzen... Ez da erraza gaur egungo begiekin hemen ikusitakoa interpretatzea. Bisita luza-tu da eta Añua eta Arbuluko elizetako margoak ikusiz amaitu dugu ibilbidea. Aipatzekoak dira ere lautadako hainbat herritxotan, baita Agurainen ere, dauden mural garaikide ederrak.

Inguru hauetan gaudela aprobetxatuz Sorginetxe trikuharri ezagunean egon gara, baita ondoan dagoen Pedroko hezegunean ere. Hegaztien babestokia da berau lautada lehorrean. Mendi ibilbideak hasteko ere paraje aproposa da, Opakua edo Entziara igoz, adibidez. Guk Munain herritik gertu aparkatu eta haritz zaharren, oso zaharren, ibilbidea egin dugu. Laburrena aukeratu dugu, 6 km-koa. Basoan sartuta ehunka urte dituzten haritzarrak aurkitzen dira, zabalak, motxa-

tuak eta ikusgarriak. Okariz herritxotik pasatuta itxi dugu ibilbide zirkularra.

Ezin ingurua utzi Agurain bisitatu bari-rik, lautadaren hiriburua berau. Bisita gidatua egin dugu berriz bertan: Udaletxe barrura sartu gara, eta sorpresa, ermita erromaniko oso bat dago barruan. San Joan eliza-gotorlekua itzelean sartu gara ere, garai batean hiria harresiz inguratuta zegoen eta elizatik zaintza-erronda egi-ten zen lekura igo daiteke. Kaleetatik ibili ostean herriaren beste aldean dagoen Andra Mari eliza-gotorlekuan amaitu dugu ibilbidea. Bestea bezain handia, erretaula interesgarria eta plateresko estiloko koro harrigarriarekin, orduak pasatu daitezke bertan dauden figuratxoak behatzen... Bide batez herria erre zenaren historia, portiko handien zergatia, Aiala familia boteretsua eta herritarren arteko eziniku-siez ere jabetu gara.



3 Sorginetxe dolmena



4 Pedroko hezegunea



5 Haritz zaharrak

Ibilbidea

Distantzia: 3,9 km (Gazeotik Alaitzara)

Desnibel positiboa: 68 m

Eskuratu
hemen
ibilbidearen
track-a



AmAr
ileapaindegia
Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburuntata:
8:00-13:30
Unib plaza, 1 behe
Zamudio
944 520 419




A close-up photograph of a person's hand holding a blue watering can, pouring water onto green plants. The background is blurred, showing more foliage and a white structure. The overall tone is warm and natural.

Haz Gaitezen

Gehiagora heltzeko.
Egin zaitez AIKORLAGUN



aikor.eus/babestu

aikor.



DENBORA-PASAK

Zein bide jarraitu behar du astronautak espazio ontzira heltzeko?



SUDOKU ERRAZA

3						9		6
6	8	7	1		5	2		4
	9	5	3	6	4	1		7
			5		9		7	3
	7			2	6		1	
8								5
1		8		5	3			
			2				6	
	5	2						1

SUDOKU ZAILA

2	1			9	6			
	9				7		3	2
7						1	9	6
	8		7		3		2	
	6		4	1		3		
	7				8	5		
				4				
				3				
5			6			9	8	4



SUKALDARITZA

Lezamako sukaldaritza ikastaroan egindako errezetak

Antxoa, ahuakate eta pikillo entsalada



Osagaiak (hamar lagunentzat):

1kg antxoa eskabetxean
100g Oliba beltza hezurarekin
100g exalota
150g tomate
Pikillo kontserban oso bat
500g ahuakate
330g limoi
800g pipertbeltz zuri irinduta
350g hegaluze moussea
Barazki bouquet bat eta erdi
100ml ozpin-olio
Gatza apur bat

Prestatzeko era:

Lehenengo eta behin ahuakatea zati-tu, eta prestatu limoi-zukua piperbeltz zuriarekin. Ondoren, jar ezazu plater

batean antxoekin eta pikilloekin, ilara bat osatuz. Hori eta gero, ipini barazki boqueta alde batean, eta hegaluze mous-

sea, bestean. Amaitzeko ondu entsalada, eta nahi izanez gero apaindu saltsekin edo belarrekin.

Kokozko flana



Osagaiak (10 lagunentzat)

1l Esne oso
100g azukre
100g koko birrindua
6 arrautz
300ml beheratutako karamelu
Kanela-zotzaren erdia

Prestatzeko era:

Hasteko, flan-ontziak karameluz estali-ko ditugu; bitartean, esnea kanelarekin irakitera jarriko dugu, bere usaina har dezan. Ondoren, arrautza eta azukrea

nahastuko ditugu, eta esnea botako diegu. Gero, kokoa gehituko dugu. Nahasketa ontzian botako dugu eta labean Maria bainuan 180 gradutara egosiko

dugu. Labetik atera eta gero hozten utziko diegu flana. Behin hotz dagoela zihurtatzen dugunean ontzitik plater-rrera pasako dugu.

Ezagutu
zure herrian
dauden taldeak
edo egin zure
proposamena!

Eta euskaraz egiten badugu?



EMAN IZENA!

Izen-ematea: Urte osoan zehar

☎ 747 447 579 • berbalagun.txorierri@gmail.com



[taupamugimendua.eus/
mintzapraktika](https://taupamugimendua.eus/mintzapraktika)

Antolatzaileak

Babesleak

Laguntzaileak



Bertoko

MUSIKA-TRESNAK ETA KULTURA



DANETARIK AUKERAN!

MATRIKULAZIO EGUNA

IRAILAK 9, 19:30.

ZAMUDIOKO KULTUR ETXEAN

689246844

BERTOKOZAMUDIO@GMAIL.COM

@BERTOKO_ZAMUDIO

